



 <p>Gipuzkoako Foru Aldundia Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Dptua, Dpto. de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes</p>	
2017 ARI: 20 ABR: 20	
SARRERA - ENTRADA	IRTEERA - SALIDA
Zka./N.º .....	Zka./N.º 878

02	FA/OF	03-015	2017
----	-------	--------	------

*Departamentuko foru diputatuak honako foru agindu hau eman du gaur:*

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak, Eusko Jaurlaritzak ezarritako politikekin bat etorritik, eta lurralde historikoko agente publiko eta pribatuekin batera, Gipuzkoako turismo jarduera areagotu nahi du, aberastasuna eta enplegua sortzen dituen alor aipagarria baita.

Horretarako, beste neurri batzuen artean, hainbat ekimen bultzatu nahi ditu; esate baterako, euskal kostaldeko geoparkean turismoa sustatzea, baldin eta bultza dezaketen turismo mota bereziki interesgarria bada sektorearentzat, kontsumo eta urtarokotasunaren ikuspuntuetatik.

Testuinguru horretan, 2014ko apirilaren 30ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Geogarapen, Euskal kostaldeko geoparkearen kudeaketarako elkarteak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten euskal kostaldeko geoparkean turismoa sustatzeko.

Aipatutako hitzarmenak bere hamargarren klausulan, indarraldiari buruzkoan ezarritakoaren arabera, 2014ko abenduaren 31 arteko iraupena izango zuen. Dena dela, urtero luzatzeko aukera jasotzen zuen, betiere behar besteko aurrekontuko kreditua izanez gero.

Horrela, aurreko ekitaldiari dagokionez, aipatutako hitzarmena 2016ko abenduaren 31 arte luzatu zen.

Geogarapen, Euskal kostaldeko geoparkearen kudeaketarako elkarteak idatziz adierazi du, 2017ko otsailaren 27an, aipatutako hitzarmena luzatzeko asmoa duela 2017rako.

Hitzarmen hori finantzatzeko, eta 2017. urteari dagokionez, Turismoa Sustatzeko Unitateko

*El diputado foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:*

El Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en coordinación con las políticas establecidas por el Gobierno Vasco y en colaboración con los agentes públicos y privados del territorio, pretende contribuir al desarrollo de la actividad turística de Gipuzkoa, como notable sector generador de riqueza y empleo.

Para ello, y entre otras medidas, pretende apoyar iniciativas como la promoción turística del geoparque de la costa vasca que resulten susceptibles de inducir el desarrollo de un tipo de turismo que, dada su capacidad de consumo y desestacionalidad, resulte especialmente interesante para el sector.

En este contexto, la Diputación Foral de Gipuzkoa y Geogarapen, Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca, suscribieron con fecha 30 de abril de 2014, un Convenio de colaboración para la promoción turística del geoparque de la costa vasca.

En la cláusula décima del citado convenio, relativa a la vigencia del mismo, se estableció que finalizaría el 31 de diciembre de 2014, dejando abierta la posibilidad de prorrogarlo anualmente, siempre que existiese la correspondiente consignación presupuestaria.

Así, y por lo que respecta al ejercicio anterior, el citado Convenio fue prorrogado hasta el 31 de diciembre de 2016.

Con fecha 27 de febrero de 2017, Geogarapen, Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca, ha manifestado por escrito la voluntad de prorrogar dicho convenio para 2017.

En orden a la financiación de dicho convenio para 2017, el jefe de Unidad de Promoción del



02	FA/OF	03-015	2017
----	-------	--------	------

buruak 30.000,00 eurotan ezarri du Geogarapen, Euskal kostaldeko geoparkearen kudeaketarako elkartearen aldeko foru ekarpena, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuaren 2016ko aurrekontuko 1.0230.300.481.00.02 2017. kontu sail izendunean jasota dagoen zenbatekoa, hain zuzen.

Era berean, Geogarapen, Euskal kostaldeko geoparkearen kudeaketarako elkarteak behar bezala egiaztatu du bete egiten duela Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikulua, ez baitio diru laguntzaren onuradun izateko ezarritako galarazpenetako batek berak ere eragiten.

Diru laguntza izenduna izatearen ondorioz, hori ematea departamentuko foru diputatuari dagokio, 2005eko uztailaren 12ko 6/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 40.4.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak

### **EBATZI DU**

**Lehenengo.-** Luzatzea 2017ko abenduaren 31 arte euskal kostaldeko geoparkean turismoa sustatzea helburu duen lankidetzaz hitzarmena, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Geogarapen, Euskal kostaldeko geoparkearen kudeaketarako elkartearen artean sinatutakoa.

**Bigarren.-** Ematea Geogarapen, Euskal kostaldeko geoparkearen kudeaketarako elkarteari (IFZ G-75018705) hogeita hamar mila (30.000,00) euroko diru laguntza izenduna, euskal kostaldeko geoparkean turismoa sustatzeko.

**Hirugarren.-** Baimentzea eta xedatzea diru laguntzari dagokion hogeita hamar mila (30.000,00)

Turismo ha establecido como aportación foral a favor de Geogarapen, Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca la cantidad de 30.000,00 euros, que es la recogida en los presupuestos de este Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes para el 2016, en concreto en la partida nominativa 1.0230.300.481.00.02 2017.

A este respecto, Geogarapen, Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca ha acreditado convenientemente el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en cuanto no estar incurso en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiaria de la subvención.

El carácter nominativo de la subvención determina que su concesión corresponda a este diputado foral, conforme a lo dispuesto en el artículo 40.4.b) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes,

### **RESUELVE**

**Primero.-** Prorrogar el convenio de colaboración para la promoción turística del geoparque de la costa vasca, suscrito entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y Geogarapen, Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca, hasta el 31 de diciembre de 2017.

**Segundo.-** Conceder a Geogarapen, Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca, (CIF G-75018705) una subvención nominativa por un total de treinta mil (30.000,00) euros para la promoción turística del geoparque de la costa vasca.

**Tercero.-** Autorizar y disponer el gasto de treinta mil (30.000,00) euros correspondientes a la citada



02	FA/OF	03-015	2017
----	-------	--------	------

euroko gastua, honako kontu sail honen kargura:  
1.0230.300.481.00.02 2017.

**Laugarren.-** Diruz lagundutako proiektuaren aurkezpen publiko eta sustapeneko ekitaldietan eta, hala balitz, proiektuaren emaitzaren azken balantzean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko ordezkari bat egongo da.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsioa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

*Jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako adierazten dizut hori.*

Donostia, 2017ko apirilaren 11

subvención con cargo a la partida presupuestaria  
1.0230.300.481.00.02 2017.

**Cuarto.-** En todos los actos de presentación pública y de promoción del proyecto subvencionado y, en su caso, del balance final del resultado del proyecto, figurará un/una representante del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la misma recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

*Lo que le traslado a Vd. para su conocimiento y efectos.*

San Sebastián, 11 de abril de 2017

**Jarduneko idazkari teknikoa / Secretaria técnica en funciones**

**Izptua.: Ana Urkola Aranburu**

